IZARRAIZPE

Ikastola publikoa

Bigarren Hezkuntza

"Elkarbizitzen ikasi eta bizitzen elkarrekin ikasi".

Gurasoentzako gida



26-27 Ikasturtea

AURKIBIDEA

1. Ongietorria **3**
2. Ikastolaren datu orokorrak **3**
3. Egutegiak **5**
3.1.- Ikasturtearen egutegia: 5
3.2.- Ebaluazioen egutegiak: 6
4. Ordutegiak **7**
5. Ikastolaren balore eta helburuak **8**
6. Ikastolaren ildo estrategikoak **9**
6.1.- Ikasleen ongizatea: 9
6.2.- Aniztasunaren trataera: 9
6.3.- Berrikuntza pedagogikoa: 9
7. Ikasleen materiala **11**
7.1.- Testu liburuak: 11
7.2.- Ordenagailu portatila: 11
8. Parte-hartze organo esanguratsuenak **12**
9. ZUTOIN Guraso Elkartea **14**
10. Familiekiko komunikazioak **14**
11. Bestelakoak **15**
11.1.- Jarduera osagarriak: 15
11.2.- Jolas-orduak: 15
11.3.- Hezi +: 15
11.4.- Bidelagun: 16
11.5.- Ikasleen mugikor eta gailu digitalak: 16
11.6. Ikasleen arau hausteak: 16
12. Ikasleen ongizatea, gaixotasunak eta istripuak **17**
12.1.- Ikasleen ongizatea: 17
12.2.- Ikaslearen gaixotasunak: 18
12.2.1.- Gaixotasunaren adierazpena: 18
12.2.2.- Ikaslea gaixorik dago: 19
12.3-. Ikasleak istripu bat izan du Ikastolan: 19
12.4.- Hutsegiteen justifikazioa: 19
13. Ikasleen orientazio pertsonala eta akademiko-profesionala **19**
14. Ikasleen betebeharrak eta eskubideak **21**
15. Zerbitzuak **22**
15.1.- Jangela: 22
15.2.- Garraioa: 22

1. Ongietorria

IZARRAIZPE IKASTOLA PUBLIKOA BHIren AGURRA

Eskuartean duzuen Gurasoentzako Gida honen bitartez Izarraizpe Ikastola Publikoak Bigarren Hezkuntzan oinarrizkoa den informazioa helarazi nahi dizue.

2026 - 2027 ikasturte hasiera honetan gure ongi etorririk beroena helarazi nahi dizuegu lehenengo aldiz gure hezkuntza komunitatera batu nahiz urtez-urte zuen seme-alaben hezkuntza gure esku uzten duzuenoi.

Aniztasuna dago gure jardunaren oinarrian eta haur zein gazte guztiek kalitateko hezkuntza, bidezkoa eta aukera-berdintasunean oinarritutakoa izatea bermatu nahi dugu.

HEZIKETA DENON ARDURA DA

- Udako oporraldiaren ostean gogorra suertatzen zaie zenbait ikasleri eskola ordutegira berriro egokitzea. Moldaketa errazteko ikasleak uda sasoian baino goizago oheratzeko ohitura har dezan komenigarria da. Era berean, goizean garaiz esnatu eta gosari egoki bat egitea ere garrantzitsua da, goiza luzea izaten delako.

  Jolas orduan mokadua egiteko zerbait ekar dezaten gomendatzen dizuegu: otarteko bat, fruitu lehorrak, fruta... Kontuan izan ondo elikatuta dagoen ikaslea gutxiago nekatu eta ondorioz hobeto kontzentratzeko gai dela.

  Bestalde, etxean ikasteko leku atsegin bat egokitua izatea garrantzitsua da. Han behar duten materiala eskura izango dute, baita ordutegiaren kopia bat ere. Lagungarri izan ohi da gainera etxean egin behar den lanerako ordutegi finko bat ezartzea, ikasketa maila eta ikaslearen beharren araberakoa. Erreferentziatzat har dezakete ordutegi hau oheratu aurretik hurrengo egunerako motxila prestatzeko.

  Gurasoon ardura ere bada da etxeko lanak egiten direla gainbegiratzea edo heziketa fisikoa duten egunean arropa egokiak dakartzatela zaintzea. Eguneroko martxan arduratsu eta saiatuak izaten laguntzen badiegu, seguruago eta lasaiago sentituko dira.

  Eskolaz-kanpoko ekintzak edota eskola partikularrak neurriz aukeratu beharko dira, haur-nerabeentzat aisialdia eta lagunekin egoteko denbora behar-beharrezkoak direlako.

  Gailu digitalei dagokienez, astelehenetik ostiralera arte kontrola ezazue pantailen erabilera. Zenbat eta gutxiago, hobe. Tentagarriak direnez, ahal bada ikaslearen logelan edo langelan ez daitezela egon.

  Eman diezaiogun garrantzia irakurketari, gurasoak eredu bilakatuz, eta ohitura batzuk ezarriz: udal liburutegira bisitak eginaz, irakurketa saioak antolatuz, liburuak elkarrekin komentatuz...

Elkarrekiko errespetuan indar berezia egiten dugu ikastola honetan. Lehenengo tutoretza saioek informatzea, ikastolako arauak jakinaraztea edo gogoratzea, ordezkariak hautatzea eta bereziki begirunea lantzea dute helburu. Honen kariaz, seme-alaben aurrean irakasleen lana ez gutxiestea eskatzen dizuegu. Gure erabakiak eztabaidagarriak iruditu dakizkizueke zenbaitetan, normala denez. Horrelakoetan hitzordua eskatu besterik ez duzue, ikastolara etorri eta gurekin hitz egiteko.

Ongi etorri Izarraizpe Ikastola Publikora!

2. Ikastolaren datu orokorrak

Lehenago Urola Ikastola BHI zena, 25-26 ikasturtetik aurrera IZARRAIZPE IKASTOLA PUBLIKOA BHI da.

Gure ikastolak herriko *Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHI* eta Uztaro Haurreskola zirenekin aspaldidanik garatu duen koordinazioaren emaitza da izen aldaketa. Beste maila batean Errezil, Aizarna eta Zestoako herri eskolekin ere lankidetzan ari gara, bertatik ere heltzen zaizkigulako ikasleak. Koordinazio estutzeko beharra zegoenaren hausnarketa partekatutik ondorioztatu zen hezkuntza publikoa erdigunean mantentzeko elkartzeko beharra zegolea. Horregatik, nahiz eta zuzendaritza talde eta klaustro bereiziak izan, Uztaro Haurrekola, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHI eta Urola Ikastola BHI batu ziren iaz IZARRAIZPE IKASTOLA PUBLIKOA sortzeko.

Izarraizpe Ikastola Publikoa BHI Gipuzkoan, Azpeitian dago kokatuta, Urola Bailararen erdian. Herritarrak ez ezik, auzo diren zenbait herri txikiagoetako ikasleak ere baditugu: Zestoa, Errezil, Urrestilla, Beizama eta Aizarna (ikasleriaren %30 gutxi gorabehera).

Gure ikasleriaren ISEK (*Indize Sozio-Ekonomikoa eta Kulturala*) ertain-baxua da.

Azpeitiko biztanleria 15.431 lagunekoa da (2025). Ia 20.000 lagun lirateke lehen aipatutauko auzo eta herriak gehituta.

Atzerrian jaiotako herritarrak %10aren bueltan daude eta joera goranzkoa da. Hurrenez hurren, EUSTATek 2025erako emandako datuekin, Zestoa da jatorri atzerritarreko herritar gehien duen herria (%13) eta Beizama gutxienekoa (%3). Oso herri euskaldunak dira denak ere.

Izarraizpe Ikastola Publikoa BHI, Aniztasun Curricularreko programa ere eskaintzen duen DBHko ikastola da. Era berean, Batxilergoko ikasketak irakasten dira bi modalitatetan: Giza eta Gizarte Zientziak eta Zientzia eta Teknologia. DBH eta Batxilergoko ikasle matrikulatuak 664 izango dira 2026-2027 ikasturtean.

Bizi dugun espazio faltak horretara behartuta, gure Ikastola bi eraikin ezberdinetan banatuta dago. DBHko maila guztiak *Perdillegi*ko eraikin nagusian kokatzen dira. Aldiz, BATX1 eta BATX2 *Mixerikordia*ko eraikinean daude, *San Martin* Zahar-egoitzaren ondoan.

Familiei dagokionez, hauen parte hartzearen oinarria *Zutoin Guraso Elkartea* da.

Perdillegi



DBH 1-4

Aniztasun Kurrikularreko talde bana
DBH3n eta DBH4n

Mixerikordia ("Mixi")



Giza eta Gizarte Zientzietako Batxil.
Batxilergo Zientifikoa

Helbideak:

Eraikin nagusia:
Perdillegi Kalea, 3
20730 Azpeitia

***Mixerikordia*:**
Artzubia, 7
20730 Azpeitia

Telefonoak: **943 89 93 35**

Posta elektronikoa: **bhi@izarraizpe.eus**

Idazkaritzako Harrera Ordutegia:

Iraila-Maiatza: 08:00 - 16:15 (ostiraletan 08:00 - 15:00)
Ekainean: 08:00 - 15:00

3. Egutegiak

3.1.- Ikasturtearen egutegia:

2026-2027 IKASTURTEKO EGUTEGIA

	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA
1			Santu Guztiak	1.Eb. DBH	Urteberri	Azt. BATX		Oporrak	Maiatzak 1	BATX 2 Ez-oh.
2				1.Eb. DBH		Azt. BATX/2. aurre DBH		Oporrak		
3						2. aurreb. DBH			Santakutz	BATX 1 Ez-oh.
4				notak DBH	Oporrak				Azt. BATX2/3. aurreb. DBH	BATX 1 Ez-oh./Eb B2/Ez-oh.
5			Azt. BATX		Oporrak				Azt. BATX2/3. aurreb. DBH	
6			Azt. BATX	Konstituzioa	Errege eguna					
7	Hasiera			Zubia						BATX 1 Ez-oh.
8				Kontzepzioa		Inauteriak	2.Eb. DBH			BATX1 Ez-ohiko/3.Eb. DBH
9			Azt. BATX			Inauteriak	2.Eb. DBH			3.Eb. DBH
10			Azt. BATX			2.EBA.BATX	2.Eb. DBH		BATX2 Ohikoa	
11						2.EBA.BATX			BATX2 Ohikoa	Eb.B1/Ez-oh.
12		Pilarika				notak BATX	notak DBH			
13		1.aurreb. BATX							Azt. BATX1/BATX 2 Ohikoa	
14		1.aurreb. BATX							Azt. BATX1/BATX 2 Ohikoa	
15										3.Eb. DBH
16			1.EBA.BATX							3.Eb. DBH
17			1.EBA.BATX						Eb. B2/Notak	
18			notak BATX						Azt. BATX1	Amaiera
19		1. aurreb. DBH							Azt. BATX1	
20		1. aurreb. DBH			San Sebastian					
21	Guras bil.	1. aurreb. DBH		Santo Tomas						
22	Guras bil.			Oporrak			Oporrak			
23	Guras bil.			Oporrak			Oporrak			
24				Oporrak			Oporrak		BATX1 Ohikoa	
25				Eguberri			Oporrak		BATX1 Ohikoa	
26							Oporrak			
27									BATX1 Oh. /BATX 2 Ez-oh.	
28				Oporrak	Azt. BATX				BATX1 Oh. /BATX 2 Ez-oh.	
29				Oporrak	Azt. BATX		Oporrak	Azt. BATX2		
30			1.Eb. DBH	Oporrak			Oporrak	Azt. BATX2		
31				Oporrak			Oporrak		BATX 2 Ez-oh./Eb B1/Notak	
	18	21	21	12	16	18	15	20	20	

Asteburua
Zubia
Oporrak
Jai eguna aukerazkoa
Jai eguna derrigorrezkoa

Ikasturte hasiera:	Irailak 7		175
Ikasturte amaiera:		egun kop.	
DBH	Ekainak 18	175	175
BATX	Maiatzak 28	160	160

3.2.- Ebaluazioen egutegiak:

DBH	1.EBAL (59 egun)	2.EBAL (52 egun)	3.EBAL/OHIKOA (64 egun)
HASIERA	Irailak 7	Azaroak 30	Martxoak 8
AMAIERA	Azaroak 27	Martxoak 5	Ekainak 18
AURREBALUAZIOA	Urriak 19, 20, 21	Otsailak 2, 3	Maiatzak 4, 5
EBALUAZIO BILERAK	Azaroak 30, Abenduak 1, 2	Martxoak 8, 9, 10	Ekainak 7,8,15,16
NOTA BANAKETA	Abenduak 4	Martxoak 12	Ekainak 18

BATX	1.EBAL (42+4 egun)	2.EBAL (40+4 egun)	3.EBAL Batx1 (53+4 egun)	3.EBAL ** Batx2 (49+4 egun)	OHIKO Batx1	OHIKO** Batx2	EZOHIKO Batx1	EZOHIKO Batx2	1. mailako pendienteak
HASIERA	Irailak 7	Azaroak 11	Otsailak 3		Maiatzak 20	Maiatzak 6	Ekainak 1	Maiatzak 18	**Ohiko 1. zatia**
AMAIERA	Azaroak 10	Otsailak 2	Maiatzak 5	Maiatzak 19	Maiatzak 31	Maiatzak 17	Ekainak 11	Ekainak 4	Urtarrilak 12,13,14
AURREBALUAZIOA	Urriak 13,14								**Ohiko 2. zatia**
AZTERKETA EGUNAK	Azaroak 5,6,9,10	Urtarrilak 28,29; Otsailak 1,2	Maiatzak 13,14, 18,19	Apirilak 29, 30; Maiatzak 4,5	Maiatzak 24,25,27,28	Maiatzak 10,11,13,14	Ekainak 3,4,7,8	Maiatzak 26,27,31; Ekainak 1	Martxoak 20,21,22
ERREKUPERAZIO EGUNAK	Azaroak 20, 23, 24	Otsailak 19,22,23			**Batx1**	**Batx2**	**Batx1**	**Batx2**	**USaP***
EBALUAZIO BILERAK	Azaroak 16,17	Otsailak 10,11			Maiatzak 31	Maiatzak 17	Ekainak 11	Ekainak 4	Ekainak 1,2,3
NOTA BANAKETA	Azaroak 18	Otsailak 12			Maiatzak 31	Maiatzak 17	Ekainak 11	Ekainak 4	

* USaP-eko datak aurreikuspena dira.
** USaP egutegiaren arabera aldaketak egon daitezke BATX 2. mailako 3. ebaluazioko eta Ohiko egutegian.

4. Ordutegiak

PERDILLEGI		MIXERIKORDIA	
DBH		**BATXILERGOA**	
		1. Saioa	8:00 – 8:55
1. Saioa	8:35* – 9:30	2. Saioa	8:55 – 9:50
2. Saioa	9:30 – 10:25	3. Saioa	9:50 – 10:45*
3. Saioa	10:25 – 11:20	4. Saioa	10:45 – 11:40
ATSEDENA	11:20 – 11:50	**ATSEDENA**	11:40 – 12:10
4. Saioa	11:50 – 12:45	5. Saioa	12:10 – 13:05
5. Saioa	12:45 – 13:40	6. Saioa	13:05 – 14:00
6. Saioa	13:40 – 14:35	7. Saioa	14:00 – 14:55**
HEZI + (astelehen, astearte eta ostegun) BIDELAGUN (Astelehen, astearte, asteazken eta ostegun)	15:15 – 16:15	* Saioa **10:40an bukatu**ko da, mokadu bat jan dezaten. ** **BATX 2: Ostegunetan eta ostiraletan** klaseak 14:00etan amaituko dira. **BATX 1: Ostiraletan** klaseak 14:00etan amaituko dira. AUTOBUSA: **Beizama**ko ikasleak klasera 10 min. berandu helduko dira, eta **ostiraletan 5 min. lehenago** irtengo dira. **Errezil**go ikasleak 5 min lehenago irtengo dira klasetik. **Zestoa**ko ikasleak: **BATX 2ko ikasleak ostegun eta ostiraletan 5 min lehenago** irteteko baimena izango dute. **BATX 1eko ikasleak ostiraletan** 5 min lehenago irteteko baimena izango dute.	

* DBH Lehen Zikloko ikasleek takila erabiltzeko aukera izango dute goizean eskolak hasi aurretik, jolas orduan eta eskola-eguna amaitzean. Takilen erabilpenak ez da inolaz ere atzerapen/puntualtasun falta justifikatzeko arrazoi izango, salbu eta, lehen orduan, DBH1 eta 2ko ikasleei 08:40ra arteko epea emango zaielako.

5. Ikastolaren balore eta helburuak

Izarraizpe guztion ikastola publikoa da, denona eta denontzat. Gure hezkuntza-proiektuaren ardatza euskara, aniztasuna, inklusioa eta lankidetza dira, eta gure komunitatearen kohesioa eta harrotasun kolektiboa sustatzen ditugu.

1. **DENONA, DENONTZAT.** Izarraizpe Ikastola Azpeitia eta inguruko herrietako ikasleen bilgunea da, jatorri guztietako pertsonak batzen dituena. Gure ikastola publikoa herritarrentzat erreferente izatea nahi dugu.

2. **EUSKALDUNA ETA EUSKALTZALEA.** Euskal kultura eta hizkuntza gure identitatearen oinarria dira. Euskaraz bizitzeko eremu eroso bat eskaini nahi diegu, euskararen erabilera sustatuz, euskal kontzientzia garatuz eta euskal kultura transmitituz.

3. **ANITZA.** Kulturarteko bizikidetza aberastasun gisa hartzen dugu. Identitate, orientazio eta izateko era guztiak dira gure nortasun kolektiboaren parte.

4. **INKLUSIBOA.** Guztientzako espazio inklusibo bat sortzeko lan egiten dugu, pertsona orok bere burua harro eta seguru sentitzeko.

5. **ZAINTZAILEA.** Giro atsegina eta elkarren zaintza sustatzen ditugu. Ongizate emozionala gure lehentasuna da, eta ikasleen beharrak daude hezkuntza prozesuaren erdigunean.

6. **HERRITARRAK HEZTEN DITUENA**. Pedagogia konpetentzialak baliatzen ditugu ikasleen parte hartzea, autonomia eta ardura sustatuz.

7. **LANKIDETZA OINARRI DUENA.** Ezinbestekoak ditugu komunitate osoaren konpromisoa eta elkarlana. Erabakiak modu partekatuan hartzea bultzatzen dugu, ikasle, irakasle eta familien ahotsak entzun eta aintzat hartuz, guztion artean ika stola hobetzen jarraitzeko.

8. **HERRIAN ERROTUTAKO IKASTOLA.** Ikastolako komunitatea herriko bizitzan txertatuta dago, bestelako entitate eta elkarteekin sareak sendotuz.

9. **SORMENA SUSTATZEN DUENA.** Pentsamendu sortzailea duten herritarrak heztea funtsezkoa da, etengabe aldatzen ari den mundu honetako erronkei aurre egin eta eraldaketa sozialean eragile izan daitezen.

10. **INGURUMENA ZAINTZEN DUENA.** Kontzientzia ekologikoa duten herritarrak heztea dugu helburu, horretarako ingurumenaren zaintza eta baliabideen kudeaketa arduratsua lehenetsiz.

Balore hauek eguneroko jardunean islatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta denon ekarpenarekin gure ikastola etengabe hobetzen jarraituko dugu.

Izarraizpe Ikastola Publikoa, herritarrak prestatzen!

6. Ikastolaren ildo estrategikoak

6.1.- Ikasleen ongizatea:

Gure zentroan diziplina eta ikasleen ongizatea uztartzen ditugu. "Ikasleen Betebeharren eta arau bilduma" (Inika aplikazioan deskarga dezakezue) dokumentuan oso garbi jasotzen dira diziplinari buruzko eskakizun guztiak. Bestalde, Ikastolaren lehentasunetako bat den ikasleen ongizatea bermatzeko hainbat mekanismo ditugu:

- **Bullyingaren Aurkako Taldea (BAT taldea)** - Zuzendaritzako, orientazioko eta Elkarbizitzaren batzordeko kideek parte hartzen dute eta bere eginkizuna balizko jazarpen kasu guztiei aurre egitea da.
- **Ongizate eta Babes Koordinatzailea (OBK)** - Ikastolak lankide bat du ikasleek erakusten dituzten babesgabetasun zantzuak edo adierazten dituzten arazoetaz arduratzeko.
- **Izar-Hitz Gela** - Ikasle guztientzako espazio seguru bat da. Edozein orduan beraien behar pertsonal eta afektiboei erantzuteko heldu baten presentzia dago. Ikaslearen eskaera zuzenari erantzuten dio, inolaz ere irakaslearen interes edo nahiei.
- **Elkarbizitza Batzordea** - Ikasle eta irakasleez osatuta dago. Ikastolan elkarbizitza egokia sustatu eta hura kaltetzen duten gertaerak aztertzen dira.
- **Elkarbizitza Zirkuluak** - Ikasturtean zehar nahi izan duten ikasleek, ikasmaila ezberdinetako talde txikietan antolatu eta saio batzuk izaten dituzte Orientatzaileekin beraien esperientziak eta bizipenak partekatzeko.

6.2.- Aniztasunaren trataera:

Zentro publiko guztien bokazioa da datozkigun ikasle guztiei ongietorria ematea eta gure komunikateko kide bihurtzea. Eskolan lau kontinentetako ikasleak ditugu. Aniztasuna ikastolaren balio funtsezkoa da.

Beste hezkuntza sistemetatik datozen ikasleekin lehentasuna komunikazio gaitasuna lortzea da, eta horretarako EUSLE programa dugu, euskara lehenbailehen ikas dezaten. *Ongi Etorri gela* deritzogu.

Beste kultura eta errealitateen ezagutza eta horiekiko errespetua ikastolaren egunerokotasunean txertatuta dago.

6.3.- Berrikuntza pedagogikoa:

Euskal Hezkuntza Sistema bizitzen ari den eraldaketa pedagogikoan murgilduta gaude geu ere. Aldaketak ikasturtez-ikasturte ematen ari gara, modu lasai baina jarraian. Ezagutza esanguratsua eta konpetentziala lortzeko helburuarekin ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa sustatzen ditugu, beti ebaluazioaren eraldaketatik abiatuz.

Ikasleen konpetentziak era esanguratsuago eta osoago batean garatzeko egoera errealetan oinarritutako ikasegoerak eta proiektuak sortzen joan gara aurreko ikasturteetan DBH1-2n. Horiek praktikan jarri eta DBH3ra zabalduko da ikasturte honetan proiektuak eta ikas-unitateak sortzeko helburua.

Funtsezko Konpetentzien ebaluazio koordinatu eta esanguratsu bat egin dugu, aurrez irakaslegoaren artean adostutako adierazleak ardatz izanda. Progresiboki DBH osora hedatuko da egiteko modu hau, aurten DBH3ra. Kurtso hasierako guraso bileran azalduko dira ebaluaziorako erabiltzen den *Avaluacció* plataformaren ezaugarriak eta funtzionamendua.

Era berean, Batxiler 2ko mailan Unibertsitatean Sartzeko Probaren (USaP) eraldaketak dakartzan moldaketak egiten jarraituko dugu.

7. Ikasleen materiala

7.1.- Testu liburuak:

Liburuak eskuratzeko mailegu sistema ezarrita dago DBHn eta Hezkuntza Sailaren bitartez kudeatzen da. Familia bakoitzak 45 Euro ordaintzen ditu eta ikasmailako liburu guztiak jasotzeko aukera du. Ikasturtearen amaieran ikasleak jasotako liburu guztiak egoera egokian itzuli beharko ditu.

Batxilergoko ikasmaila bakoitzean beharko diren liburuen zerrenda aurreko ikasturtearen amaieran jakinarazten da INIKAz.

7.2.- Ordenagailu portatila:

DBH eta Batxilergoko ikasle berriek ordenagailu eramangarri bat jasotzen dute maileguan Hezkuntza Sailaren eskutik (*Chromebook*a DBHn eta *Windows*a Batxilergoan) etapa osorako. Ordenagailu horiek modu pertsonalean esleituta daude (bakoitza bere kodearekin) eta horregatik ikasle baten ordenagailua ezin zaio beste bati utzi. Familiak uneoro jakin behar du gailua non dagoen. Era berean, ikastolan matrikulatuta egoteari uzten dionean, itzuli egin behar da. Hau da, gailuak hezkuntza-esparruan soilik erabiltzeko dira eta ez dira inolaz ere familiaren jabetzakoak. Arazoren bat atzemanez gero, familiak ikastolak izendatu duen pertsonarekin jarriko dira harremanetan.

Legezko tutoreek Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean jasotako eranskina sinatu beharko dute ordenagailua jaso aurretik. Sinatzeak ebazpen horretan ezarritako baldintzak onartzea dakar, edozein erabilera desegokia jokabide desegokitzat hartuko da.

Eusko jaurlaritzak kontratatutako aseguru batekin datoz, erabilpen egoki baten ondorioz sortu daitezkeen matxurak babestuko dituena.

DBHn gailu digital horien erabilera desegokia saihesteko “IMT Lazarus” deituriko aplikazioa instalatu zen 2025-2026 ikasturtean, irakasle eta gurasoei ikasleek erabil

ditzaketen aplikazioak edota ordutegiak konfiguratzeko aukera ematen diena. Eskola orduetan irakasleak izango dira ardura hori hartuko dutenak. Ordu horietatik kanpo, familiek nahiko balute, konfigurazioa molda dezakete. Ikasleen atsedena bermatzeko, ordenagailu hauek blokeatu egingo dira gaueko 11:00etatik goizeko 07:00etara.

DBH1 eta DBH2ko ikasleek ikastolako takilak erabilgarri izango dituzte, ordenagailua egunero etxera eraman beharrik ez dezaten. Bateria kargatzeko edota etxeko lanak egiteko ezinbestekoa dutenean soilik eramango dute etxera.

8. Parte-hartze organo esanguratsuenak

ESKOLA-KONTSEILUA	
ESTAMENTUAK	**ORDEZKARIAK**
Zuzendaritza	1) Roman Artano (Zuzendaria) (I, E) 2) Jexux Larrañaga (Ikasketaburua) (I)
Irakasleak	3) Elkarbizitza-Hezkidetza Arduraduna. 4) Ane Azkune (I) 5) Julen Azpeitia. 6) Ana Asiain 7) Ruben Larrañaga 8) 26-27 ikasturtean hautatzeko* 9) 26-27 ikasturtean hautatzeko* 10) 26-27 ikasturtean hautatzeko* 11) 26-27 ikasturtean hautatzeko* 12) 26-27 ikasturtean hautatzeko* 13) 26-27 ikasturtean hautatzeko* 14) 26-27 ikasturtean hautatzeko*
Gurasoak	15) Alice Goffart 16) Aitor Larrañaga (E) 17) Maite Bikendi 18) Elena Badiola Ucin 19) Iñaki Aizpuru Urdalleta 20) Usoa Etxeberria Aramburu 21) Leire Juaristi Oyarzabal (E) 22) Elisabet Aginagalde Azpiazu 23) Iñigo Azkue (I)
Ikasleak	24) Naia Urrestilla Echezarreta 25) Irati Lizarralde Agirre 26) Ane Iparraguirre Aizpurua 27) Sara Jones Garmendia 28) Eritz Ugarteburu Goenaga 29) Elene Odriozola Odriozola 30) Sarai aldalur Pombo

Langile ez irakaslea	31) Jexux Ganzarain (E)
Udal ordezkaria	32) Leire Sarasua
Idazkaria	33) Joseba Larrañaga (botorik ez) (I, E)
(I) **(E)**	Batzorde Iraunkorra Batzorde Ekonomikoa
* **ikasturte honetan berritzeko**	

ZUZENDARITZA TALDEA	
ZUZENDARIA	Roman Artano
IKASKETABURUA	Jexux Larrañaga
IDAZKARIA	Joseba Larrañaga
BATXILERGOko KOORDINATZAILEA	Maite Artetxe
DBHko KOORDINATZAILEA	Ruben Larrañaga

ORIENTAZIO MINTEGIA	
DBH 1-2	Izaskun Zendoia
DBH 3-4	Itziar Gaintzarain
BATX 1 (OBK figura)	Iñaki Saenz
BATX 2	Itziar Osinalde

MINTEGIBURUAK	
BIOLOGIA-GEOLOGIA	Esther Gaintzarain
EKONOMIA	Virginia Uranga
EUSKARA	Haritz Etxebarria
FILOSOFIA	Ane Manterola
FISIKA-KIMIKA	Eider Badiola
GAZTELANIA	Edurne Toscano
GEOGRAFIA ETA HISTORIA	Alazne Ostolaza
HEZIKETA FISIKOA	Gorka Sastre
IKT	Miren zubizarreta
INGELESA	Leire Juaristi

MARRAZKETA	Mara Iriarte
MATEMATIKA	Ane Azcune
MUSIKA	Kemen Bedialaunetam
TEKNOLOGIA	Karmen Bastida
ORIENTAZIOA	Itziar Gaintzarain

9. ZUTOIN Guraso Elkartea

Hezkuntza arautuarekin batera gurasoak dira hezkuntzaren ezinbesteko oinarria. Ikaslea ikastolara etxetik hezita etortzen da eta ikastolan jasoko duen heziketa indartzeko eta ikastolaren lanaren sendotzea bermatzeko, ezinbestekoa da gurasook ere ikastolaren bizitzan parte har dezazuen.

Ikastolako guraso elkartea jada aspaldi eratuta dago eta *Zutoin* du izena.

Zutoinen egituran parte hartzea ezinbestekoa da ikastolaren martxa zuzena bermatzeko, erakunde honen bitartez hainbat ekintza antolatzen eta finantzatzen baitira.

Zutoinen parte hartzera animatzen zaituztegu!!

Zutoin Guraso Elkarteko kideak hauek dira:

- Andoni Aranaga
- Nagore Aramendi
- Maite Epelde
- Alaitz Esnaola
- Onintza Zeberio
- Iñigo Azkue
- Alejandro Azkue
- Antonio Gallarin

2026-2027 ikasturtean Eskola Kontseiluaren zein Zutoin Guraso Elkartearen kidegoaren zati bat berrituko dira.

10. Familiekiko komunikazioak

Ikastolak familiekin komunikatzeko hainbat kanal erabiltzeko aukera du.

- **INIKA** - **Hau izango da lehenetsitako kanala**, honen bitartez oharrak, hutsegiteen justifikazioa... bidera daitezkelako. Familiek mugikorrean aplikazioa instala dezakete.
- **Gmail**
- **Avaluacció** - Seme-alabaren ebaluazio konpetentzialari buruzko informazioa jasotzeko aukera ematen duen aplikazioa da. Aurten DBH1-2-3n aplikatuko da.

Kanal hauetaz aparte, posible da telefonoz zentroarekin kontaktatzea. Idazkaritzan dei guztiak jasotzen dituzte 8:00etatik 16:00etara. Dei horiek dagokien pertsonei pasa daitezke baina horretarako hauen ordutegia ezagutzea komeni da.

Ikastolako webgunean (www.izarraizpe.eus) eta Instagramen (#Izarraizpe) ikastolako albiste eta oharrak argitaratzen ditugu.

Harremanetarako lehenetsitako hizkuntza beti euskara izango da, nahiz behar duten familiekin elebiz ere komunikatuko garen.

11. Bestelakoak

11.1.- Jarduera osagarriak:

Jarduera pedagogikoak direnez, asistentzia derrigorrezkoa da.

Egunerokoan asistentzia faltak pilatzeak edo bizkidetzaren kontrako jokabideak izateak jarduera osagarrietan parte hartzeko aukera galtzea ekar lezake.

Jarduera hauek aurrera eramateko koordainketa sistema bat ezarria dago. Jarduerari dagozkion garraio zein ekintza kulturalen gastuak Zutoin Guraso Elkarteak diruz laguntzen ditu:

- DBHn jardueraren kostuaren %25a ordaintzen du ikasleak eta %75a Zutoin Guraso Elkarteak.
- BATXILERGOAN kostuaren %50a ikasleek ordaintzen dute eta beste erdia Zutoin Guraso Elkarteak.

Jarduera osagarri bakoitza zehaztutakoan idatziz jakinaraziko zaizue familiarentzat suposatzen duen gastua.

Ikastolan dugun araudiari jarraiki, irakasle arduradunek kontrako zehaztapenik egiten ez badute, ikasleek debekatuta dute telefono mugikorra jarduera hauetara eramatea.

Jarduera osagarriak ekintza pedagogikoak diren heinean derrigorrezkoak dira. Arrazoi ezberdinetatik horietara joaten ez den ikaslea ikastolara etorri behar du, asistentzia derrigorrezkoa baita.

11.2.- Jolas-orduak:

DBH1 eta DBH2ko ikasleak ezin dira ikastolaren eremutik atera. Aldiz, DBH3, DBH4 eta Batxilergokoak bai.

DBH3 eta 4ko ikasleek eremutik irten ahal izateko ikasturtearen hasieran gurasoei banatutako baimena sinatuta ekarri beharko dute.

11.3.- Hezi +:

Hezi+ ikastetxeko hezkuntza-jarduera eta eskola-denborak berrantolatzen dituen programa bat da. Bere helburu nagusia irakaskuntzaren kalitatea hobetzea eta ikasle guztien eskola-arrakasta bermatzea da.

Ordutegia: Astelehen, astearte eta ostegunetan, 15:15etik 16:15era eskaitzen da. Programa urriaren hasieratik maiatzaren amaierara bitaretan egoten da martzan.

Zertan laguntzen die ikasleei?

- **Errefortzua eta zalantzak**: Ikasgaiak hobeto ulertzeko eta laguntza zuzena jasotzeko kontsulta-saioak dituzte.
- **Zaletasun Tailerrak eta Hausnarketa Saioak**: Beren zaletasunak lantzeko eta Orientatzaileekin batera hausnarketa egiteko guneak dituzte.
- **Gainditu gabeko ikasgaiak**: Aurreko urteetako ikasgaiak pendiente dituztenentzat aukera bikaina da; saio hauetara etorriz gero eta eskatutako lanak eginez gero, ikasgai horiek gainditzeko aukera izango dute.

11.4.- Bidelagun:

Eskola-ordutegitik kanpoko laguntza programa bat da Bidelaguna. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzenduta dago, baldin eta zailtasunak edo eskola-atzerapena badituzte gizarte-desabantailako egoerarekin lotuta.

Programan parte hartuko duten ikasleen zerrenda prest izan ondoren gurasooi jakinaraziko zaizue. Iraila amaieran bilera bat egingo da ikasleekin, gurasoekin eta begiraleekin. Bertan Bidelagun programaren nondik norakoak azalduko dira eta konpromiso orri bat sinatu beharko duzue, seme-alabak betebeharreko baldintzekin. Konpromiso horiek ez betetzeak programatik kanpo gelditzea lekarke.

Bidelagun programa urritik maiatzera garatzen da, astelehenetik ostegunera eta 15:15etatik 16.15ra. Ondoren Zestoara joateko garraioa dute bertako ikasleek.

11.5.- Ikasleen mugikor eta gailu digitalak:

Arau orokor moduan, ikastolaren eremuan (kanpoaldeko hesiak eta langek mugatzen duten eremuan) ezin da inongo gailu elektronikorik erabili ordu lektiboan.

Gai honen inguruko arautegia *Ikasleen betebeharren eta arau bilduma*n jasota dago. INIKAn eskuragarri duzue. Horretarako ibilbide hau jarraitu aplikazioan: Baliabideak - Kudeatu - Gurasoak - DBH-BATX

Ikastolak ez du hartuko ikasleak zentrura ekarritako gailu pertsonal elektronikoen hausturen edo desagerpenen gaineko inongo erantzukizunik.

11.6. Ikasleen arau hausteak:

Ikasleen arau hausteak ikastolako *Antolakuntza eta Jarduera-Araudia*n eta *Ikasleen Betebeharren eta Oinarrizko Arau Bilduma*n jasota dagoen moduan kudeatuko dira.
Arau hauste edo bizkidetzaren kontrako jokabideen neurri zuzentzaileen artean beti bere jokabidearen gainean hausnarketa egiteko saio bat egongo da. Ikaslea adieraziko zaion arratsaldean etorriko da berau modu egokian osatzera. Hausnarketa ez balitz modu egokian osatuko beste egun bat ezarriko zaio.

12. Ikasleen ongizatea, gaixotasunak eta istripuak

12.1.- Ikasleen ongizatea:

Ikasleen ongizatea ikastolaren lehentasunetako bat da. Gure helburua ikasle guztiak ikastolara lasai etortzea da. Horretarako, ikastolan elkarbizitza positibo kultura sortu nahi dugu.

Ikastolan hainbat figura eta talde ezberdin ditugu modu zehatzean ikasleriaen ongizateaz arduratzen direnak:

A) <u>Bullying-aren Aurkako Taldea (BAT Taldea):</u>

Taldea honako kideek osatzen dute:
- Ikastolako zuzendaria
- Ikasketaburua
- Ongizate eta Babeserako Koordinatzailea
- Hezkidetza arduraduna

Talde hau astero biltzen da ikastolan eman edo hauteman diren eskola jazarpen kasuen ebazpena gidatzeko.

Baina zer da “jazarpena”, “bullying”-a? Eskola jazarpena (ingelesez: *school bullying*) ikasle batek bere eskolan beste ikasleen eskutik jasaten duen jazarpen eta eraso-egoera jarraitua da. Jazarriak gutxiespenak, irainak, txantxak, iseka, kolpeak eta bestelako eraso fisiko eta psikologikoak pairatzen ditu eskola jazarpenean, erasotzaileen botereari edo indarrari aurre egin ezinik, eta azkenik jazarria mendekotasun-egoera batera doa. Ezberdintasun handia dago eguneroko arazo eta intentzio txar gabeko bromen artean eta benetako jazarpenaren artean. Ezinbestekoa da ez nahastea.

Zure seme-alaba jazarpena pairatzen ari den susmoa baduzu, eskatu iezaiozu gertatzen dena azaltzea eta idatziz jaso. Ondoren, segi pausu hauek:
- Ikaslearen tutorearengana jo eta zure kezkak adierazi.
- Saiatu neurritasun jokatzen, gehiegi larritu gabe, ikastolak badu prozedura ezarria kasuak bideratzeko, eta eskarmentua ere bai. Ez bihurtu zure seme-alaba errudun edo errieta egin.
- Ez aurre egin “jokabide erasotzailea duen pertsonari” edo haren familiari. Arazo gehiago sortzen ditu eta egoera larritu egiten da, zure seme-alabaren kalterako.

B) <u>Ongizate- eta Babeserako-Koordinatzailea (OBK figura):</u>

Behaketa horretaz arduratzen den figura Ongizate eta Babeserako Koordinatzailea da eta orientatzaileetako batek betetzen du.

Bere behaketa beti datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa errespetatuz jardungo du kasu orotan.

Koordinatzaileak ikasleren baten ongizatea erasaten duen elementurik hautemango balu, ekiteko derrigortasun legala du, egoera horiek gizarte zerbitzuei edo segurtasun indarrei komunikatuz.

C) *Izar-Hitz* gela:

Izar-Hitz gure ikastola publikoan bizikidetza positiboa eta gatazken kudeaketa baketsua sustatzeko dugun espazio prebentibo eta proaktiboa da. Gune honetan egiten den lanaren helburua da ikasleen ongizatea bermatzen laguntzea eta elkarbizitzarako konpetentzia garatzea.
Gela hau -1 solairuko ekialdeko eremuan dago, pasabidearen hondoan. Hau da bere arautegia:

1- **Ikasleak (edo ikastolako langileak) bakarka edo binaka hurbildu daitezke**:
   - Ikasleek, emozionalki larrituta daudenean edo lasaitzeko une bat behar dutenean.
   - Ikasleek, irakasleok egoera hori identifikatu eta ikaslea bertara bidaltzen dugunean.
   - Elkarbizitza-zirkuluak edo tutoretza-lanak dinamizatzeko talde txikiek, aurrez adostuta.
   - Irakasleek edo bestelako ikastolako profesionalek, emozionalki larrituta daudenean edo lasaitzeko une bat behar dutenean.

2- **Ikasle batek hara joan nahiko balu, aurrez irakasleari jakinaraziko dio**. Honek espazioa libre dagoen begiratuko du erregistroan. Hala balitz, ikasleari baimena eman eta erregistroa osatuko du.

3- **Ikaslea komunitateko beste kide batekin sorturiko arazoa lantzera joan nahi badu adierazi behar zaio horretarako beste foro batzuk ere daudela, adibidez Ikasketaburua**.

4- **Bizkidetzaren Aurkako Jokabidetzat kontsideratuko da ikasleen aldetik Izar-Hitz gelako bertaratzen gainean gezurretan aritzea** (izan ez diren bisitak asmatu edo edota bisiten iraupena benetan izandakoa baino luzeagoa izan dela adieraztea),

Ikasturtearen hasieran Orientazio mintegiak deialdi bat egingo du irakasle bolondresak eskatu eta espazioaren ordutegi ahalik eta osatuena lortzeko. Bertan zaintza egingo duten irakasle bolondresei ikasleekin jarraitu beharreko irizpideak zehazten dituen dokumentu bat banatuko zaie.

12.2.- Ikaslearen gaixotasunak:

12.2.1.- Gaixotasunaren adierazpena:

Ikasleak gaixotasun berezirik badu tutorea jakinaraziko dugu. Era berean, gaixotasun horren tratamendurako medikazioren bat hartu beharko balu, beti berarekin ekartzen duela ziurtatu beharko dugu. Eta medikazio hori ikastolan medikazioa egon beharko balitz, tutoreari emango zaio, ikastolan modu egokian gordeta egon dadin. Era berean, medikazioaren berritzeaz arduratuko dira.

12.2.2.- Ikaslea gaixorik dago:

Ikaslea etxean badago eta gaixorik sentitzen bada ez da eskolara ekarri behar. Inoiz ez sukarra badu.

Kasu hauetan INIKAn justifikatu behar da hutsegitea modu egokian (**gaixorik dagoela zehaztuz** oharretan). Azterketa garaietan ezinbestekoa da adierazpen hau **aurretik** egitea.

Ikaslea eskolara etorri eta gaixo sentituko balitz, zentrotik etxera deituko genuke eta seme-alabaren egoera azaldu. Ikaslea DBH3-4n balego etxeratzeko aukera izango luke. Aldiz, DBH1-2n egongo balitz, gurasoak mezu bat bidali beharko luke bhi@izarraizpe.eus-era seme-alabaren izena adieraziz eta bere kabuz etxeratzeko baimena ematen diola zehaztuz.

12.3-. Ikasleak istripu bat izan du Ikastolan:

Istripu arina izan bada arduradunari deituko zaio eta ikaslea gaixorik izango balitz moduan jokatuko da.

Istripu larria izango balitz, anbulantziari deitu edo zuzenean osasun zentrora eramango genuke eta, aldi berean, arduradunari abisua eman bertaratzeko.

12.4.- Hutsegiteen justifikazioa:

Ikasleak huts egiten badu, gurasoek hutsegite hori idatziz behar bezala justifikatu beharko dute INIKAn. Edonolaz ere, justifikazioak zuzen beteko dira (hutsegitea sortarazi zuen **arrazoia modu egokian zehaztuz**) eta astebeteko epean aurkeztu onartuak izan daitezen.

13. Ikasleen orientazio pertsonala eta akademiko-profesionala

Ikastolako Orientazio departamentuak urteko plana ezarrita dauka maila bakoitzean orientazio pertsonal, akademiko eta profesionala garatzeko.
Maila batzuk, dudarik gabe, orientazio lan sakonagoa eskatzen dute, DBH4 eta BATXILERGOko urteak, hain zuzen ere, ibilbide akademiko-profesionala ondo identifikatzea eskatzen duelako.
Hauek dira, maila horietan orientazioarekin aurrera eramango diren programak:

DBH 4:

- Orientazio akademiko-profesionalaren aurkezpena: irailaren 14tik 19ra.
- Modalitate aholkua: irailaren 28tik urriaren 10era.
- Gurasoekin bilera: urriaren erdialdera.
- Ikasleen orientazio pertsonala: urriaren 13tik azaroaren 6ra.
- Batxilergoko ibilbidea:
    - Batxiko ikasleen esperientzia ezagutzea: azaroaren amaiera aldea.
    - Matrikulazio epea: martxoaren erdialdera.
- Lanbide Heziketako ibilbidea:
    - Gerolan proiektuko hausnarketa saioak: otsailaren 5ean.
    - Gerolan proiektuko Zatoz! azoka: martxoaren 13an.
    - Izarraitz LHko eta enpresen bisitak: martxoaren 25-26.
    - Izarraitzen hasi nahi? Topaketak: apirilaren 27tik 30era.
    - Aurrematrikula garaia: maiatzaren 4tik 22ra.

14. Ikasleen betebeharrak eta eskubideak

BETEBEHARRAK:

a. Ikasteko betebeharra.

b. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

c. Bertaratzeko betebeharra. Ikasleek egunero joan behar dute ikastolara, puntualtasunez eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte. Puntualtasun eza eta asistentzia faltak justifikatu behar dira. Ez justifikatzeak ondorioak ditu jokabidearen balorazioan eta baita azterketetan ere.

d. Bizikidetza errazteko betebeharra. Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastolako bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskide, irakasle edo beste edozein langileekin errespetuz jokatuz.

e. Pertsonen kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.

f. Instalazioak eta materialak zaintzeko betebeharra.

g. Hesiek mugatutako ikastolaren esparru osoan gailu elektronikorik ez erabiltzea. Soilik irakaslearen baimenarekin erabili ahalko dira ikaskolako gailuak.

ESKUBIDEAK:

a. Hezkuntza integrala izateko eskubidea.

b. Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.

c. Ikasle adingabeek ikastolaren babesa jasotzeko duten eskubidea.
d. Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.
e. Eskola- eta lanbide- orientazioa hartzeko eskubidea.
f. Osotasun, nortasun eta duintasun pertsona-leko eskubidea.
g. Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.
h. Ikastolan biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
i. Adierazpen-askatasunerako eskubidea.
j. Parte hartzeko eskubidea.
k. Informazioa jasotzeko eskubidea.
l. Aukera-berdintasunerako eskubidea.
m. Gizarte-babeserako eskubidea.

15. Zerbitzuak

15.1.- Jangela:

A. Jantoki-zerbitzua:

- Jantoki-zerbitzua 2026ko irailaren 14an hasi eta 2027ko ekainaren 18an amaituko da.
- Abenduaren 18an, Gabonetako oporren egunean, EZ dago jantoki-zerbitzurik, klaseak eguerdian amaitzen direlako.

B. Ordutegia:
14:35etatik 15:15etara, egunero.

C. Prezioak:

- Ikasle guztiek eta edozein momentutan jantokiko zerbitzua erabil dezakete aurreko egunean abisatu behar izango delarik.
- 25-26eko kuotak honako hauek izan ziren:
  - Ikaslea, ohiko bazkaltiarra (astean 3 aldiz gutxienez) 4,60 € eguneko.
  - Ikaslea, ohiko bazkaltiarra (astean 3 aldiz gutxienez) garraio-eskubidearekin 3,30 € eguneko.
  - Ikaslea, ezohiko bazkaltiarra 5,20 € eguneko.

D. Jantokiko arautegia:
Jantokiko zerbitzua eskatzen duten familiek araudiaren dokumentua jasoko dute sinatzeko. Bertan azaltzen denez, araudia ez betetzeak zerbitzua jasotzeko eskubidea denbora batez edo betirako etetea ekar lezake.

E. Jangela alternatiboa:
Ohiko jantokiko zerbitzuaz gain, Hedatze jarduerak dauden egunetan (AL, AR, OG), ikasleek etxetik jatekoa ekar dezakete eta horretarako antolatutako espazio batean hura berotu eta jan, irakasleen zaintzapean.

15.2.- Garraioa:

15.2.1.- Eskaerak eta ordutegiak:

Garraio zerbitzua soilik DBHko ikasleei dagokie.

Garraio zerbitzua eskatu ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira: erroldatze-bizilekua ikastolaren eragin-eremuan egotea, hurbiltasuna, distantzia (2 kilometro DBH1-2n eta 4 km DBH3-4n; mugikortasun urriko ikasleak 500 m-tik gora) eta adin betekizunak, hain zuzen ere.

Urtez urte matrikulatutako ikasleen arabera ibilbide eta geralekuak antolatzen dira. Erreferentzia gisa hemen dituzue 2026-2027ko ibilbideak:

IBILBIDEA	IZENA	GELTOKIAK	ORDUAK	ENPRESA
G1806	**PRESALDE**	1. Arroa Goia	7:55	**La Guipuzcoana**
		2. Zestoa	8:05	
G1807	**ZESTOA**	1. Arroa Erreka	8:00	**La Guipuzcoana**
		2. Zestoa	8:05	
		3. Lasao	8:10	
G1803	**MATXINBENTA**	1. Nuarbe	8:10	**Ulacia Bidaiak**
		2 Urrestilla	8:15	
G1805	**SANTA ENGRAZI**	1. Santa Engrazi	7:40	**Autocares Aldalur**
		2. Aizarna	7:45	
		3. Iraeta	7:50	
		4. Zestoa Plaza	8:05	
G1808	**ERREZIL**	1. Letea	7:55	**Autocares Aldalur**
		2. Loidi		
		3. Intsausti		
		4. Errezil	8:00	
		5. Irure		
		6. Izarre		
		7. Abieta		
		8. Aitzeta		
		9. Egurbide 18		
G1804	**BEIZAMA**	Beizamako plaza	7:50	**Taxi Beatriz**
	OÑATZ		08:15	**Taxi Xabier**
G1810	**ELOSIAGA**		08:10	**Autocares Aldalur**

IBILBIDEA	ABIALEKUA
S. Engrazi-Aizarna-Iraeta (autobus txikia)	Garmendipeko geltokia
Zestoa-Arroa (2 autobus)	Garmendipeko geltokia
Beizama (Taxia) Onatz (taxia)	Ikastolaren hesi ondoan, Garmendigain
Errezil	LHko geltokia
Urrestila	LHko geltokia

15.2.2.- Garraio zerbitzuaren arautegia:

Garraio zerbitzua eskatzen duten familiek araudiaren dokumentua jasoko dute sinatzeko. Bertan azaltzen denez, araudia ez betetzeak zerbitzua jasotzeko eskubidea denbora batez edo betirako etetea ekar dezake.